

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OIONGO UDALA

Bozeramaileen batzarra sortzea, osatzea eta arautzea

Bo190712D. Oiongo Udalbatzak ondoren zehazten den bozeramaileen batzarra sortzea, osatzea eta arautzea erabaki du:

I. Bozeramaileen batzarra udalaren organo osagarria, kide anitzekoa eta aholku emailea da. Alkateak eta eraturako udal taldeetako bozeramaileek osatzen dute. Bozeramaileen batzarrak ez du erabakitze eskumenik izango, eta ezingo du inolako udal organoren eskuordetzerik jaso.

II. Hauek dira bozeramaileen batzarraren eginkizunak:

- Alkatearengandik informazioa jasotzea eta taldeetako kideen artean zabaltzea; behin hogeita lau ordu igarota, ulertuko da zinegotziek ezagutzen dutela alkateak batzarrari emandako informazio guztia, edonolako izanda ere.

- Taldeen eskaerak bideratzea, funtzionamenduari eta Udalbatzaren eztabaidetan parte hartzeari dagokionez, eta bilkura jakin batzuetan eztabaiden araubidea adostea.

- Adierazpen instituzionalak egitea zorionak emateko, poza adierazteko, salaketak edo protestak egiteko, atsekabea adierazteko, elkartasuna erakusteko, etab.

- Osoko bilkuren gai zerrendak prestatzen laguntzea, alkateak beharrezkotzat jotzen badu, bai eta alkatearekin lankidetzan aritzea ere, taldeen arteko harremanekin —edo taldeen eta alkatearen artekoekin— zerikusia duten bestelako gaietan.

III. Soil-soilik alkateari dagokio bozeramaileen batzarrerako deiak egitea, eta, urgentziazkoak izan ezik, gutxienez hogeita lau ordu lehenago jakinarazi beharko dira. Ez da beharrezkoa gai zerrenda aurkeztea.

IV. Batzarreko kideen gehiengo osoa bertaratu behar da bilkurak balioz egiteko lehenengo deialdian; aldiz, gutxienez hiru kide egon behar dira bigarren deialdian, hamabost minutu geroago.

V. Alkateak udaleko langileei edo Udalbatzako kideei eskatu ahalko die bilkuretara joateko, informazio helburuetarako.

VI. Bozeramaileen batzarraren bilkurak ez dira publikoak izango, eta eztabaidarako izango dira soilik. Bilkuretan hartutako erabakiak lotesleak izango dira batzarreko taldeentzat, baina ez hirugarrenentzat.

VII. Bilkura bakoitzaren ondoren akta egingo da, eta Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegiak 109.1 artikuluko a), b), c), d), e), h) eta j) apartatuetan aipatutako alderdiak jasoko ditu agiri horrek. Aktari beste edozein agiri erantsi ahal izango zaio, batzarreko kideek edo haiei laguntzen diharduten funtzionarioek helburu operatiboetarako idatziak.

VIII. Bozeramaileen batzarraren bilkurak kide anitzeko organoen bilkuratzat hartzen dira, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak 75.3 artikuluan adierazitakoaren ondorioetarako. Beraz, ez arduraldi eskusiborik ez arduraldi partzialik ez duten zinegotziek ordainsariak jaso ahal izango dituzte bozeramaileen batzarreko bilkuretara benetan joateagatik.

IX. Agiri honetan aurreikusi ez den guztirako, organo osagarrien funtzionamenduari buruzko xedapenak aplikatuko dira ordezeko gisa.

Oion, 2019ko uztailearen 12a

Alkatea

EDUARDO TERROBA